



Arraunari buruzko Plan Estrategikoa

2003 - 2007

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
Kirol Zuzendaritza

2003ko Martxoaren 31

1.	Lan Metodologia.....	4
2.	Arraunaren gaur egungo egoera EAEn	
1.	Arrauna: modalitateak	7
2.	Egutegia	8
3.	Federazioko lizentzien bilakaera. 2002ko egoera	9
4.	Lizentzien garapenaren azterketa. 1991-2002	10
5.	Arraun Elkarteak	14
6.	Federazioak	20
7.	Udalak	21
8.	Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza (Legutio)	22
9.	Euskal Traineruen Liga	24
10.	Komunikabideak	
3.	Eginkizuna eta jarduketa ildoak	36
4.	Proiektuak	38



1. Lan Metodologia

Proiektuaren helburu nagusia “Arraunaren Plan Estrategikoa Euskal Autonomi Erkidegoan” agiria prestatzea da. Agiri horretan, behar bezala antolaturik eta egituraturik bilduko ditugu arrauna Euskadin garatzeko behar diren neurriak, 2003-2007 denboraldirako.

Zer lortu
nahi dugu?

- Arraunak Euskadin duen egoera nolakoa den jakitea.
- Gogoeta: arrauna Euskadin etorkizunari begira.
- Jarduketa lerroak eta ekintza planak proposatu, ikuspegi partekatu hori lortzeko.
- Erantzukizunak banatu, aipatu ekintza planak gauzatu ahal izateko.

Zertarako?

- Arrauna Euskadin sustatu eta bultzatzeko.

NOLA?

- Arrauneko eragile sorta zabalari buruzko informazioa bildu kopuruari erreparatuta (federazioak, klubak, kirolariak, etab.).
- Arraunari loturiko eragile sorta zabalari elkarrizketak egin.
- Arrauneko adituez osaturiko Eztabaida Batzordea eratu, KPMG Consulting, S.L.-aren aurrerapenak baliozkotzeko.
- Behin-betiko agiria prestatu eta onestea.

Egindako bilerak

- Bilerak hainbat teknikarirekin
- Bilera-aurkezpena komunikabideekin
- Bilera-aurkezpena udalekin
- Bilera-aurkezpena klubekin
- Lan bilera udaletako teknikariek
- Bilerak Eusko Jaurlaritza eta Aldundiekin

Egindako elkarrizketak

- Legutioko Instalazioetako teknikaria
- Gipuzkoako Arraun Federazioa
- Euskadiko Arraun Federazioa
- Bizkaiko Arraun Federazioa
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Diputazioa
- Eusko Jaurlaritza

Inkestak

- Inkesta ezberdina bidali zaie arraun klubei, komunikabideei eta arraun klubak dituzten udalei.
- Arraun klubak: Elantxobe AE, Arkote, Zierbena, Getaria AE, Ur Kirolak, Karmeleko Ama, Itsasoko Ama, Mundakako AT, Algorta AT, Hondarribia AE, Zarauzko AE, Orio, Aita Mari, Ondarroa, Illunbe, Isuntza, Lutzana AE, Bermeoko AE, Raspas del Embarcadero, Santiagotarrak, Donibaneko Arraunlariak, Loiolatarra, Kaiku, CD Iberia, Donostia Arraun Lagunak, CD Fortuna, CR San Nikolas, Deustuko AT, Donostia Kiriko, Hernaniko AE, Mutriku AT, Koxtape, Sanpedrotarra (denetara 33)
 - Erantzunak: 15 (kluben %43 eta arraunlarien %68)
- Komunikabideak: Euskadi Irratia, Donostiako Herri Irratia, Bizkaia Irratia, Diario Vasco, El Correo, Deia, Mundo Deportivo, El Mundo (denetara 8)
 - Erantzunak: 4 (%50)
- Udalak: Mutriku, Irun, Bilbo, Portugalete, Hernani, Santurtzi, Mundaka, Zierbena, Hondarribia, Orio, Zarautz, Pasaia, Ondarroa, Lekeitio, Sestao, Zumaia, Donostia, Errearteria, Plentzia, Erandio, Getxo, Elantxobe, Bermeo, Getaria (denetara 24)
 - Erantzunak: 12 (%50)



2. Arraunaren gaur egungo egoera EAEn

Aulki mugikorra edo arraun olinpikoa



Nazioartean egiten da.

Ur lasaiak behar dira (itsasadarra, urtegia, lakua)

Olinpikoaren barneko arraun kirolak: skiffa, skull bikoitza, lauko skull-a, lemazain gabeko bikoia, lemazaindun bikoia, lemazain gabeko laukoia, lemazaindun laukoia, lemazaindun zortzikoa.

Lehiaketa Nagusiak:

EAEEn eta Estatuan: Euskadiko Txapelketa, Espainiako Txapelketa

Nazioartean: JJ.OO., Munduko eta Europako Txapelketak.

ARRAUNA

Tostako arraunketa

Bizkaiko (Kantauri) Itsasoan eta Galizian.

Hala itsasoan nola lehorreko uretan.

Trainerua



Arraun kirol nagusia

13 arraunlari eta lemazaina

Senior mailan aritzen dira

Lehiaketa nagusiak: Euskal Liga, Kontxa, beste beste estropada batzuk

Trainerila



6 arraunlari eta lemazaina

Gazte eta senior mailan

Lehiaketa nagusiak: lurralde txapelketak, Euskadiko Txapelketa, Espainiako Txapelketa

Batela




4 arraunlari eta lemazaina

Haur, kadete eta gazte mailan

Lehiaketa nagusiak: lurralde txapelketak, Euskadiko Txapelketa, Espainiako txapelketa

2.2 Egutegia 2002

2003ko martxoaren 31
Behin-betiko Txostena



Arraun kirolaren denboraldia (estropadak dauden hilabeteak)



Arraun kirol bakoitzerako data nagusiak



Euskal Traineruen Liga


2.3 Lizentziei buruzko azterketa. Egoera 2002

2003ko martxoaren 31
Behin-betiko Txostena

2002

Kirol hau EAE barnean, Bizkaian eta Gipuzkoan jokutzen da, oso emakume gutxi aritzen da, lizentzia gutxiago dago beheko mailetan seniorretan baino eta ezberdintasun handiak daude arraunketa olinpikoa eta tostako arraunketaren artean, aritzeari, egiturari eta antolaketari dagokionez.

35
KLUB ARI DIRA




LIZENTZIAK GUZTIRA
1.742

ARRAUNLARIAK
GUZTIRA
1.552


28 epaile
16 entrenatzaile lizentziadun
137 zuzendari

392 parte hartzaile Euskadiko
Arraun Olinpiko Txapelketan
(%25)


ARRAUNLARI BANAKETA
MAILAZ MAILA



ARRAUNLARI BANAKETA
SEXUZ SEXU



ARRAUNLARI BANAKETA
SEXUZ SEXU ETA MAILAZ
MAILA




•Iturria: Euskadiko Arraun Federazioa (2002ko denboraldiari dagozkion datuak) eta guk-geuk prestatua

2.4 Lizentzien azterketa. Bilakaera 1991-2002

2003ko martxoaren 31
Behin-betiko Txostena


1991-2002

KLUB KOPURUA



35 klubengaineko egonkortasuna azken 7 urteotan

LIZENTZIA KOPURUA



Beheranzko joera. Azken bi denboraldiotan, ordea, goranzko joera hasi da pixka batean


•Iturria: Euskadiko Arraun Federazioa (2002 denboraldiari dagozkion datuak) eta guk prestatua

2.4 Lizentzien azterketa. Bilakaera 1991-2002

2003ko martxoaren 31
Behin-betiko Txostena

1991-2002

**MAILA
BAKOITZAREN PISUA**




Seniorren pisu erlatiboa hazi da, eta, jaitsi, aldiz, beste guztiak, gazteak, bereziki.


Dena dela, beheko mailetan, lizentzia kopurua hazi da, helburu den populazioari begira.

**REMEROS
POR SEXO**

Lizentzia kopurua denboraldi bakoitzeko



%Arraun Lizentziak EAeko Populazioa kontuan hartuta (mailak: haurrak, kadetea eta gazteak)




Gizon kopuruak behera egin du eta emakume kopuruak bere horretan dirau

•Iturria: Euskadiko Arraun Federazioa (2002 denboraldiari dagozkion datuak) eta guk prestatua


1991-2002 (aulki mugikorra)

Euskadiko outrigger txapelketa: partaidetza




Gazteak, seniorrak behera doaz. Haurrak eta kadeteak mantentzen dira.

Euskadiko outrigger txapelketa (2002): banaketa sexuz sexu



Euskadiko outrigger txapelketa (2002): banaketa mailaz maila



•Iturria: Euskadiko Arraun Federazioa, CPT-ko teknikarien azterlana eta guk prestatua


2.4 Lizentzien azterketa. Bilakaera: aulki mugikorra

2003ko martxoaren 31
Behin-betiko Txostena

Bilakaera aulki mugikorretan


Arraun elkarte
nagusien
bilakaera aulki
mugikorrean

•Iturria: Euskadiko Arraun
Federazioa, CPTko
teknikarien azterlana eta guk
prestatua



Arraunlari kopurua, bana beste, mugikorrean, azken 6 urteotan

Parentesi artean arraunlari kopurua 2002an



Arraunlari kopurua


Bana beste, mugikorrean, 5etik gora arraunlari izan dituzten klubak, azken 6 urteotan.

Azken urteotan,
arraunlari gehien izan
dituzten klubak

Hainbat klubetan
aldaketa nabarmenak
gertatu dira, azken
urteotan

2.5 Arraun Elkarteak


- Kluben banaketa geografiari begira, EAEn: klub gehiegi dago jende gutxi bizi den eremu batzuetan.



Biztanleria nagusiak

- 3.000 – 5.000 biztanle
- 5.000 – 15.000 biztanle
- 15.000 – 30.000 biztanle
- 30.000 – 100.000 biztanle
- 100.000 biztanle baino gehiago


2002



Banaketa horrek agerian uzten du zaila dela belaunaldien txandaketa egitea, eta, era berean, zaila dela ontziak hainbat maila eta modalitatetan mantetzea.


•Iturria: Euskadiko Arraun Federazioa (2002ko denboraldiari dagozkion datuak) eta guk-geuk prestatua

▪ **Diru sarrereren jatorria:**





•Iturria: KPMG Consulting-ek eginiko inkesta

▪ **Gastuen banaketa:**




•Iturria: KPMG Consulting-ek eginiko inkesta



Hona hemen inkestaren emaitzen ondorio nagusiak: arraun elkarteak txikiak dira, berez diru gutxi lortzen dute, eta neurritz gora daude traineru seniorraren mende. Beraz, traineru nagusiarentzako diru asko baliatzen dute, kudeaketa epe motzera eginez.


Era askotako elkarteak daude, tamaina eta tipologiari erreparatuta:

- Lizentzia kopuruaren arabera, hainbat talde egin daitezke:



• Iturria: Euskadiko Arraun Federazioa (2002 denboraldiari dagozkion datuak) eta guk prestatua

- Elkarteen banaketa, oinarrizko mailek kirolari kopuruan duten ehunekoaren arabera (haurrak, kadeteak eta gazteak):



- Emakumearen parte hartzeari dagokionez:

- %20tik gorako portzentajea ondoko elkarte hauek dute: Mutriku, Fortuna, Elantxobe, Aita Mari eta Santurtzik.
- Beste alde batetik, ez da emakumezko arraunlaririk Isuntza, Sanpedrotarra, Bermeo, Zierbena, Algorta, Portugalete, Deusto, Raspas, Donostia Kiriko, Donibaneko eta Loiolatarran.

•Iturria: Euskadiko Arraun Federazioa (2002 denboraldiari dagozkion datuak) eta guk prestatua

- **Elkarteen aurrekontuari dagokionez:**
 - Inkestaren datuen arabera, EAEko arraun elkarten **urteko batezbesteko aurrekontua** hauxe litzateke: **81.300 euro**.
 - Hala ere, alde handia dago eskura ditugun datu horien artean (adibidez, aurrekonturik handiena 224.000 eurokoa da eta txikiena, aldiz, 18.000 eurokoa. Beraz, 12 aldiz handiagoa da.
 - Datuek diote arraunlari bakoitzeko **batezbesteko gastua** urteko **1.300 euro** direla. Bana beste, arraun taldea 45 arraunlariz osatua dagoenez, elkarte bakoitzaren aurrekontua **58.536 eurokoa** litzateke.

2.6 Federazioak



2003ko martxoaren 31
Behin-betiko Txostena

Baliabide eskasiak eta, federazioen arteko antolaketa, koordinaketa eta lankidetzarik ezak eraginik, federazioek ezin dute proiekturik egin epe labur eta erdira. Ondorioz, ez dago aurrerapausorik ematerik arraunaren arazoak konpontzeko.

Euskal Federazioa



Aurrekontua 2002
301.090euro

* Zerbaki horren barnean, programa estrategikoak, zehatzak eta Euskadiko selekzio nagusia daude. Selekzioaren aurrekontua 88.950 eurokoa da.



Bizkaiko Federazioa



Aurrekontua 2002
233.433 euro




Gipuzkoako Federazioa

Aurrekontua 2002
136.741 euro

* Zerbaki horren barnean, lizentziak tramitatzeagatik eskuratzen dituzten sarrerak daude. Diru hori Euskal federazioari ematen zaio. Sarrera horiek kontuan hartu gabe, aurrekontua **122.317** eurokoa da).



- Udalek arraunean izan duten jokabidea, bi arrazoik eragin dute nagusiki:
 - Herritarren artean arraunean aritzeko garapena laguntzea: eskola-kirola, partaidetzako kirola eta lehiaketako kirola.
 - Herrian lehiaketa ospetsuak –bai gizarteari bai komunikabideei begira- jokatzeko interesa.
- Inkestaren emaitzen arabera, udalek, bana beste, arraunari urteko emaniko dirulaguntza 12.500 eurokoa da.
 - Zenbaki hori askoz ere handiagoa da, kontuan hartzen badira, udalek, arraunarentzako pabilioiak eraiki edo hobetzeko, egin dituzten inbertsioak. Alde horretatik, esan behar da, arraun elkartearen instalazio asko udalenak direla.
 - Beste alde batetik, aipatu ere aipatu behar da alde handia dagoela udalek emaniko dirulaguntzetan. Herriko arraun elkartearen kirol maila nolakoa, dirulaguntza halakoa. Era berean, Euskal Ligako estropadarik egiteak badu zerikusia dirulaguntzarekin.
 - Hona hemen dirulaguntzen banaketa, ehunekoetan adierazia:



•Iturria: KPMG Consulting-ek eginiko inkesta

Udalek, bereziki, lehiaketak eta azpiegiturak finantzatzen dituzte, baina lehentasuna ematen diote oinarrizko arraunean eginiko lanari

Foru Aldundiak

- Aldundiek arraunari buruz eginiko lan nagusia (Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiez ari gara, Araban ia ez baitago jarduerarik), federazioei diru baliabideak ematean datza, ondoko honi jarraikiz:
 - Eskola-arraunari eta ohiko arraunketari emaniko dirulaguntzak.
 - Bertako kirolari laguntzeko dirulaguntzak.
- Gipuzkoako Aldundian bada hitzarmen bat Kirolgi erakundearekin. Hitzarmen horren bidez, dirulaguntza ematen zaie arraun elkarteei. Helburu nagusia, lehiaketako arrauna antolatu eta maila teknikoa goratzea da.
- Eskola-kirolari dagokionez, Aldundien ardurapean dago, udalekin koordinaziopean. Hona hemen:
 - Gipuzkoan, 2001az geroztik, bada Arraun Federazioaren eta Aldundiaren arteko akordio bat, laguntza teknikoa helburu duen hitzarmena egiteko. Akordio horrek aukera eman du, 2001-2002 denboraldian, arrauna eskaintzeko sustapen eta lehiaketa jarduera gisa, haurretan eta kadetetan (51.690 eskola-lizentzietatik, guztira 35 fitxa izan dira).
 - Bizkaian, arrauna ez dago eskola-kirol gisa eskainitako jardueren artean 2001-2002 denboraldian. Eskola-kirolari emaniko dirulaguntzak arraunergometroak erosteko baliatu dira, ikastetxeetan eginiko aurkezpenetan erabili direnak.

Eusko Jaurlaritza

- Euskadiko Arraun Federazioari emaniko dirulaguntzak alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzak arraunari buruzko plan estrategikoa prestatu du, 1998ko Euskadiko Kirolari buruzko Legeak dioenari jarraikiz. Horixe izan da zeregin nagusia.
- Legutioko instalazioak Eusko Jaurlaritzaren esku daude eta denetara 550.000 euro inguru gastatu ditu 1998 eta 2001. Instalazio horiek ez dira erabiltzen ari balia litezkeen mailan, egiten ari diren inbertsioak kontuan hartuta.
- Iritzia eskaturik, erakunde guztiek diote, orokorrean lan dinamika aldatu behar dela arraunean, arraunketari laguntzeko programei heldu eta epe labur eta erdira garatu ahal izateko xedearekin.**

Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, batez ere, dirulaguntza eman diete arraun federazioei, arrauna garatzeko aspektu estrategikoagoak aztertu gabe. Horixe izan da orain arteko lan nagusia. Egoera hori aldatu beharra dago, eta, horretarako, arraunean ari diren eragile guztien arteko harreman dinamika aldatu beharra dago.

2.8 Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza

2003ko martxoaren 31
Behin-betiko Txostena

Erakunde publikoek arraunari emaniko dirulaguntza. 2002.

Erakundea	Euskadiko Arraun Fed.	Arabako Arraun Fed.	Bizkaiko Arraun Fed.	Gipuzkoako Arraun Fed.	Elkartek	Ekitaldiak	GUZTIRA
Eusko Jaurlaritza	225.800	-	-	-			225.800
Arabako Aldundia	-	-	-	-			0
Bizkaiko Aldundia	-	-	105.177				105.177
Gipuzkoako Aldundia	-	-	-	42.416	40.148		82.564
Udalak	-	-	-	-	* 298.118	(143.712 euro)	298.118

* Udalek euskal elkarteei emaniko dirulaguntza honela lortzen da: KPMG Consulting etxeak 24 udali bidalitako inkestan lorturiko 2002ko batezbesteko dirulaguntzaren estrapolazioa. Ez dira kontuan hartu azpiegiturretan eginiko inbertsioak, ezta udal zehatzen batek inkesten emaitzetan eginiko aldaketak ere.

* Araba: ez dago daturik

•Iturria: Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta KPMG Consulting-ek eginiko inkesta

- Hauxe da EAEn antolatzen den arraun lehiaketa nagusia, eta Kontxarekin batera, hauxe da gizartean eragin handiena duena, hau da, jendeak gehien segitzen duena.
- EZAUGARRI NAGUSIAK (erregelamenduan oinarriturik, 2002an)
 - Maila bakarrean jokutzen da, eta hartan Euskal Herriko eta Kantabriako elkarte guztiak ari daitezke. Hala ere, badira partaidetza kupo batzuk, jatorriaren arabera.
 - Ligan egiten diren estropadak honela sailkaturik daude: A (guztira, 12) eta B. Bien arteko aldea hauxe da: batetik, Ligan sailkatzeari begira emaniko puntuak, eta, bestetik, sarien zenbatekoa (gutxienez, 12.000 euro A-rako, eta 6.000 euro, aldiz, B-rako). Horrela, 2002an, saritan, guztira, 365.000 euro banatu ziren (%60 A estropadetan eta %40 B estropadetan).
 - Maila praktikoan, aipatu beharra dago estropadak antolatzeko dagoen aldea, eta, komunikabideek, EITBk bereziki, egiten duten segimendua, A estropaden alde oso modu nabarmenean.
 - Elkarrekin, estropadetan aritzeko eskubidea lortzen dute sailkapen-estropadaren bide (erlojupekoa), uztailearen hasieran jokutzen dena. Lorturiko postuaren arabera, A edo/eta B estropada kopuru zehatzetan aritzeko eskubidea dakar.
 - Estropadan sailkatzeko kupoak badira, elkarrekin jatorriaren arabera:
 - Bermatua dago Bizkaiko eta Gipuzkoako bina traineruren parte hartzea, lehen hamabi sailkatuen artean.
 - Lehen hamabi horien artean, gehienez ere Kantabriako bi talde ari daitezke.
 - Liga sailkapena, koefiziente baten arabera egiten da: lorturiko puntuazioa zati parte hartutako estropada kopurua. Koefiziente handiena duena Liga irabazlea da.

Liga, arraun egutegiaren lehiaketa nagusia da, Euskal Herriko eta Kantabriako arraun elkarrekin parte hartzen dute (badira kupoak, jatorriaren arabera), eta praktikotasunari begira, bi lehiaketa mailetan berezia dago.

- Hona hemen lehiaketako BESTE EZAUGARRI batzuk, elkarrizketa, bilera eta jasotako iritzietan adieraziak, lehiaketak dituen arazo nagusiak agerian uzten dituztenak:
 - Traineruen denboraldiaren egutegia: batetik, iritzi orokorra da **traineru estropada gehiegi** dagoela uda bezalako denboraldi mugatuan. Alde horretatik, kontuan hartu behar dira udalek dituzten interesak, estropadak herrian jokatzeko, turismoa erakartzeari begira. Horrek esan nahi du egutegia ez dela antolatzen soilik kirol irizpideei jarraikiz.
 - Beste alde batetik, denboraldiaren planifikazioak eraginik, traineruek sasoirik onena uztaileko iritsi behar dute (Euskal Ligan sailkatzeko estropada), bai eta irailaren hasierarako ere (Kontxa), eta hori ez dirudi oso egokia denik kirol ikuspegi hutsetik.
 - Eragileen artean gaurkotutako eta adostutako egutegia behar da.
 - Ez dago behar hainbateko zorrotasunez ari den kirol diziplina batzorderik.
 - Estropadak modu berean antolatu behar dira (balizajeak, azpiegiturak, e.a.)
 - Lehiaketa antolatzean, lehentasuna eman beharko litzaioke goi mailako errendimenduari eta kirol lehiaketari eta ez da halakorik gertatzen (gonbidapenak, kupoak, e.a.),
 - **Ez da kirolari gazte baliagarrien sarrera bultzatzen elkarte bakoitzeko lehen traineruan, lehiaketa maila bakarra baitago, eta, horrez gain, aurrekontuaren % handia, traineru seniorrak lorturiko emaitzen mende dago.**

Agerian dauden arazo nagusiak gai hauei buruzkoak dira: araudi gaurkotua eta adostua eduki beharra, kirol diziplina batzorderik eza, estropadak modu berean antolatu beharra, eta, lehiaketa eta kirol ikuskizunari lehentasuna eman beharra beste aspektu batzuen gainean.

- Komunikabideei iritzia eskaturik, hona hemen datuak:
 - Arraun egutegiari dagokionez, komunikabideek, funtsean, arreta lehiaketa hauei eskaintzen diete: Euskal Traineruen Liga (A estropadak, zehazki) eta Kontxari, eta beste estropada hauei ere bai: BBK Bandera edota El Corte Inglés Bandera.
 - Tostako arraunketako eta aulki mugikorreko beste modalitateei ez zaie ia arretarik eskaintzen komunikabideetan, zaleengan ere interes txikiagoa sortzen dutelako.
- Geografiari begira, zaleek batez ere kostaldean segitzen dute, trainerua sustraitua dagoen lekuetan. Dena den, Kontxako estropadak EAE osoan du eragina.
 - KPMG Consulting-ek, 2002an eginiko inkestaren arabera, EAEko 6 urtetik gorako biztanleriaren %0,5rentzat arrauna da kirolik gustukoena, aritzeko.
 - Inkesta beraren arabera, inkestatuen %1,1ak erantzun zuen arrauna haien kirolik gustukoena dela, zuzenean ikusteko.
- Arraunak, produktu mediatiko gisa, izan dezakeen ahalaria dagokionez, komunikabideek esan dute, uztaileko eta abuztuko estropada lehiaketa garrantzitsuak (urte sasoi horretan kirol emanaldi gutxiago baitago) kontuan hartzeko moduko lekua duela, zaleek segi ditzaketan kirolen artean.
- Jarraian, hona hemen datu batzuk, arraunari buruzko telebista emanaldiek lorturiko ikuslegoaren gainean:

Deporte	Nºemisiones	Audiencia media por emisión (%)	Audiencia media por emisión absoluta	Cuota	Audiencia total año
Fútbol	93	5,5%	114.542	19,1%	10.652.392
Ciclismo	17	2,1%	44.996	12,0%	764.938
Remo	18	1,8%	37.827	14,1%	680.879
Pelota	138	3,3%	68.664	12,2%	9.475.564
Cesta	28	0,9%	18.913	4,5%	529.572
Remonte	10	0,7%	14.710	3,2%	147.103
Trinquete	7	1,2%	25.218	4,8%	176.524
Baloncesto	14	1,7%	36.025	8,5%	504.355
Atletismo	3	0,7%	14.710	4,8%	44.131
Aizkolaris	11	1,2%	25.218	6,1%	277.395
Boxeo Izarrak	55	1,1%	23.116	7,5%	1.271.394
Balonmano	3	1,4%	29.421	5,0%	88.262

•Iturria: ETB eta guk prestatua (2001eko datuak)

Regata	Fecha	Hora	Audiencia Media %	Cuota (share) %
CASTROKO BANDERA	2001/7/15 Domingo	12:00	1,3	12,3
GIPUZKOA-BIZKAI	2001/7/22 Domingo	12:00	0,9	9,9
EL CORREO-BBK BANDERA	2001/7/25 Miércoles	12:00	0,9	11,2
TELEFONICA BANDERA	2001/7/28 Sábado	18:00	1,1	6,6
EUSKADIKO I SPRINT TXAPELKETA	2001/7/29 Domingo	11:30	0,7	9,6
ONDARRUKO BANDERA	2001/8/4 Sábado	18:00	1,3	9,0
ONDARRUKO BANDERA	2001/8/4 Sábado	20:00	2,0	18,6
HONDARRIBIAKO BANDERA	2001/8/12 Domingo	18:00	1,7	11,5
FEDERAZIO SARIA	2001/8/12 Domingo	18:30	1,5	10,6
XIX EUSKADIKO TXAPELKETA	2001/8/12 Domingo	19:00	1,1	9,2
ZARAUZKO BANDERA	2001/8/15 Miércoles	11:45	1,2	16,3
ZARAUZKO BANDERA	2001/8/15 Miércoles	16:20	0,9	4,6
PETRONOR BANDERA	2001/8/18 Sábado	18:00	0,6	4,4
ORIOKO BANDERA	2001/8/26 Domingo	18:00	2,0	11,8
BERMEOKO BANDERA	2001/9/13 Jueves	18:00	1,1	6,5
XI. BBK BANDERA	2001/9/16 Domingo	12:00	3,2	24,6
KONTXAKO BANDERA	2001/9/2 Domingo	11:45	3,0	31,2
KONTXAKO BANDERA	2001/9/9 Domingo	11:45	5,2	39,7
PROMEDIO	-	-	1,7	13,8

Arraunaren barnean, komunikabideentzako arreta gune nagusia trainerua da. Udan, lehia maila handia duen lehiaketa da eta produktu mediatiko interesgarria ere bada.



3. Ondorio nagusiak

3. Ondorio Nagusiak

2003ko martxoaren 31
Behin-betiko Txostena

AHULDADEAK

1. Azpiegiturak eta Kirol materiala
2. Beste kirol batzuek baino erakarpen txikiagoa.
3. Arrauneko kirol eragileen gaitasun urria.
4. Lehiaketa Sistema eta Araudia ez dago orekatua eta horrek kalte egiten dio kirolari berari (irregulartasuna, polemika, gatazka,..)

SENDOTASUNAK

1. Arraunak, maila teknikoan eta kirolari begira, berez dituen balioak beste kirol batzuen aldean.
2. Arraunaren balio erantsiak beste kirol batzuen aldean (kulturan txertatua, ingurumenari lotua).
3. Tradizio handia eta presentzia hainbat herritan. Herri horietan, arraun elkarteak erreferente soziala da.
4. Komunikabide eta babesleentzat, goi mailako arrauna ikuskizun produktua eta mediatikoa da.

MEHATXUAK

1. Kirol eskaintza zabal-zabala.
2. Demografiak behera egin du.
3. Ez dago plan berezirik edo indar handiko planik, arrauna herritarren artean bultzatu eta zabaltzeko.
4. Boluntario kopuruaren murrizketa.
5. Ez dago pizgarririk, oinarritzko lehiaketa lantzeko.
6. Ez dago arrauna epe luzera garatzeko proiekturik.

AUKERAK

1. Arraunean ari diren eragile guztien arteko lankidetzak.
2. Instalazioak hobeki aprobetxatu eta sortu, kirol maila guztiei begira.
3. Kostaldeko zenbait herritan, elkarteak eta beraien instalazioak aprobetxa daitezke kirola herrian sustatzeko.
4. Arrauna, kostaldeko herrietara turistak erakartzeko baliabide gisa erabiltzea.
5. Egungo lehiaketa sistema garatu eta indartzea.

AHULDADEAK

- Azpiegiturak eta kirol materiala.** Kirol azpiegitura bereziak eduki eta kirol materiala garestia erosi beharra, horra hor kirol honetan aritzeko lehenbiziko oztopoa. Horri loturik, hona hemen ezaugarri horren ondorio nagusiak, laburbildurik:
 - Eskola-Kirola: Ikastetxe gehienentzat oso zaila da kirol azpiegitura edo material berezi horietan sartzea. Ondorioz, ezinezkoa da eskola-kirol mailako lehiaketa egituraturik sortu.
 - Partaidetza Kirola: Oso gutxi dira kirol honetan ari diren afizionatuak, federazioetako lehiaketa sistematik kanpo. Arrazoia hauxe da: inbertsio eta gastu handiak egin behar dira, eta taldean jokatu beharra.
 - Errendimenduko Kirola: Materialetan eta azpiegituretan (mantentzea eta inbertsioa) gastatu beharrak are gehiago ahultzen du elkarte askoren ahalmena, finantzatu eta kudeatzeko. Horregatik, elkarteak zuhur dabilta baliabideak non sartu erabakitzerakoan, hau da, diru sarrerarik handiena ematen dien hartan egiten dute gastua (traineru seniorrean), beste kirol mailen kaltetan (aulki mugikorra eta mailarik gazteenak).
- Ez da beste kirol batzuk bezain erakargarria:** Arraunaren beste ezaugarri batzuk direla eta, kirolariarentzat ez da horren erakargarria beste kirol batzuen aldean:
 - Oso kirol nekoso da, eta orain, aldiz, guztiz kontrakoa gertatzen da egungo kirolen joeretan.
 - Geografiak dakarren muga, hau da, soilik aritu daiteke kostaldeko herrietan edota urtegi eta itsasadarretatik hurbil dauden haietan.
 - Seguritate txikiagoaren irudia, beste kirol batzuen aldean.
 - Eguraldi gogorrarekin aritu beharra (urtarrila, otsaila, martxoa, etab.). Diziplina handi handia eskatzen du, beheko mailetan, batez ere.
 - Kirol polemikoaren irudia ere badu, eta, horrek ikastetxeak eta gurasoak uzkuratzen ditu, seme-alabak edota ikasleak kirol honetan sartzerakoan.
- Kirol eragileen gaitasun urria (elkarteak eta federazioak):** Oro har, EAEko arraunean ari diren kirol eragileen ezaugarriak hauek dira: dimentsioz txikiak dira, baliabidez urri dabilta, kudeaketari eta teknikari dagozkien egituren gaitasun urria, lankidetzaz txikia eta sarrerak traineru seniorrak eskuratutako diruen mende daude.

Egia da arraunak diru asko hartzen duela seniorren traineruaren babesleengandik eta halakorik ez da gertatzen, ez maila horretan behintzat beste kirol batzuetan. Babesleen dirua eta dirulaguntza publikoak dira finantziario iturri bakarrak. Sarrerak handitu eta dibertsifikatuko dituzten zerbitzuak landu eta garatu behar dira. Finantzario iturri berriak behar dira, partaidetzako kirolari zerbitzuak eskainiz (turismoa, enpresak, e.a.), oinarritzko kirolariaren prestakuntza hobetu behar da, materiala alokatzea lehiaketa ludikoetan, beste kirolarietara aritzen diren kirolarietara zerbitzuak eskaini behar zaizkie, etab.

AHULDADEAK (jarraipena)

Eragileen egituren ezaugarri horiek eta abaguneari dagozkion beste baldintza batzuek eraginik, elkarte batzuetan ahaleginetan ari dira ahalik eta trainerurik lehiakorrena lortu eta, horrela, denboraldiz denboraldi bizirik iraun ahal izateko.

Egoera traba handia ezartzen ari zaio aulki mugikorraren garapenari hala nola elkarte asko oinarrizko mailetan egiten ari diren lanari.

4. **Lehiaketa eta Araudi sistema desorekatua:** Traineruaren egungo Lehiaketa sistema hala nola traineruaren antolaketa eta araudia desorekatua dago, trainerua erdi profesionalizaziorantz jotzen ari den honetan. Interes ekonomikoak eta mediatikoak gorantz nabarmen ari diren bitartean, lehiaketako egiturak ez dira egoera berrira moldatzen ari:

- Sistema asanblearioan oinarritutako antolaketa honek era askotako elkarten interesak ase nahi ditu, baina horrek galarazten du lehiaketaren etorkizunerako funtsezkoak diren erabakiak hartzea. Izan ere, gehienetan, guztiak asetzeko moduko konponbideak bilatzen baitira.
- Egungo lehiaketaren egutegia, estropada kopurua eta partehartzaileak ez datoz bat kirol irizpide hutsekin, lehiaketa garatzeko irizpide hutsekin, baizik eta eragile guztien interesak asetzeari helburu duen lehiaketa da: elkarteak, udalak, babesleak, antolatzaileak, etab.
- Lehiaketa sistemak ez du bultzatzen kirol errendimendurik gorena, lehiaketa mailaz maila ez banatzeagatik.
- Lehiaketa sistema honek ez ditu lehiaketa barnera bultzatzen kirolari gazte baliagarriak.
- Lehiaketa sistemak arau ezberdinak ditu lurraldez lurralde edota bandera bakoitzaren antolatzailearen arabera, eta diziplina-araubidea biguna da.
- Lehiaketa sistemak gabezia handiak ditu estropada zainen eta epaileen prestakuntzan, estropadak ez dira modu berean antolatzen, eta diziplina araubidea ez dago oinarritua kirol justizia modernoan.

Ezaugarri horiek eta beste inguruabar batzek ekarritako bi ondorioek erabateko kaltea egin diezaioke arraunaren etorkizunari:

- Irregularitasun nabarmena dago arraunaren gainerako lehiaketen egutegian eta partaidetzan (aulki mugikorra, beheko mailak, etab...). Hori arazo handiak sortzen ari zaio kirol modalitate horien etorkizunari.
- Horrez gain, etengabeko polemika, eztabaida eta hika-mikak sortzen ari dira elkarte, federazio, teknikari, zuzendari eta abarren artean. Egoera horrek, kirol honek epe erdi eta luzera ikuskizun gisa izan dezakeen ahala murrizteaz gain, gatazka giroa sortu du, eta, horrek eraginik, ezin da behar bezalako elkarlana egin, arraunak dituen egiturazko arazo horiei aurre egiteko.

MEHATXUAK

1. **Kirol eskaintza zabal-zabala:** Azken urteotan kirol berri asko eta asko sortu dira eta kirol eskaintza izugarri zabaldu da aldagai askoren bidez. Hori ez dago ukatzerik. Kirola, azken buruan, gizartearen eskarira moldatzen ari da. Azken urteotan gizartearen gertatu diren aldaketek indibidualismo handiagoko kirolak eskatzen dituzte, ez horren nekosoak, konpromiso txikiagoa eskatzen dutenak... Kirolik tradizioaletako batzuek arazo nabarmenak dituzte gizartearen eskakizun berrietara moldatzeko. Arrauna, bere ezaugarriak direla eta, mehatxu larria du, inguruabar berri horietara moldatzen ez bada. Beraz, ekin eta neurriak hartu behar dira, arrauna herritar guztien artean zabaldu eta jakinarazteko: neurriak hartu behar dira arrauna partaidetzako, eskolako, olgetako eta turismo moldeko kirolera egokitzeke, kirolak dituen sendotasunez baliatuta (ingurumena, herrian eta kulturaren sustraitua) eta ahuldadeak murriztuta (materialak, azpiegiturak, seguritatea,...).
2. **Demografiak behera egin du:** Horrez gain, biztanle kopurua pixkana behera doa eta hori eragozpena ere bada jende olde handia mugiarazten ez duten kirolentzat, hala nola gutxienezko dimentsio bat izatea behar duten kirolentzat (arrauna), inbertsio handiak behar dituelako. Egia da badirela datu pozgarri batzuk (beheko mailetan, populazioa kontuan harturik, federatu kopurua %0,5etik %0,8ra igo da 1991tik2002ra), baina kontuan hartu behar dugu helburu den populazioa murriztu ere egiten dela aurrera begira.
3. **Boluntario kopuruaren murrizketa:** Arazo hau kirol askotan gertatzen da, baina inkesta erantzun dutenek diote eragin nabarmena izaten ari dela arraunean.
4. **Ez dago planik, edo indar handiko planik, herritarren artean arrauna bultzatu eta zabaltzeko:** Aurreko bi mehatxu horiek eta arraunak berez dituen ahuldadeek eraginik, herritar gehienak gera daitezke jakin gabe arrauna dela gure gizartearen ondare historiko eta kulturalean partaide den kirola. Horregatik, gure galderak erantzun dituztenek diote oso mehatxu larria dela plan orokor berezirik ez izatea herritarrei jakinarazteko arrauna gure kultur ondareko zati garrantzitsua dela.
 - **Ez dago pizgarririk, oinarrizko lehiaketa lantzeko:** Elkarrekin ez dute motibaziorik oinarrizko kirola lantzeko, eta, arrazoiak ugari dira: lehiaketak irregularrak dira, kirol pizgarririk ez, bitartekoetan eta baliabideetan neurritzat gorako inbertsioa egin beharra, sarrera gutxi eragiten ditu, etab...
Arrazoi horiek eta beste batzuek gain, azken urteotan elkarrekin asko ohartu dira euren lanak ez dakarkiola bere antolamenduari emaitza onik, fitxaketak eta kontratazioak egiten baitira, konpentsazio sistemarik gabe.
 - **Ez dago arrauna epe erdira eta luzera garatzeko proiekturik:** Eragile guztien gaitasuna urria da eta gatazka eta eztabaida giroa nagusitu. Horrek eraginik, lankidetzak eta lanerako giroa ez dago epe laburrera, eta, horrela, ezinezkoa da, arraunaren egiturazko arazoei aurre egitea. Beraz, behar-beharrezkoa da elkarlana hastea, epe erdi eta luzera arraunketari, arraun kirolei eta kirol maileri on egin diezaien.

SENDOTASUNAK

1. **Arraunak, maila teknikoan eta kirolari begira, berez dituen balioak beste kirol batzuen aldean:** Teknikatik eta kiroletik ikusita, arraunak dakartzan ezaugarriek lehentasuna eman diezaiokete beste kirol batzuen aldea:
 - Talde lana, konpromisoaren beharra,...
 - Anatomia eta fisiologia lantzen da: lan bilaterala, deskargan dagoen indarraren garapen dinamikoa, erantzun kardiobaskularra,...
- **Arraunaren balio erantsiak beste kirol batzuen aldean:** Arraunak gainera, baditu beste kirol batzuen aldean nabarmentzen duten ezaugarriak: hemengo kirola izatea, gure herriaren kulturari barne-barnetik lotua egotea, eta gure naturarekin eta ingurumenarekin harremanetan egiten da. Horrek guztiak eraginik, arrauna erreferentziazko kirola izan daiteke gure gizartearentzat.
- **Tradizio handia eta presentzia hainbat herritan. Herri horietan, arraun elkartea erreferente soziala da:** Arrauna geografiaren aldetik mugatua dago eta hori ahuldadetzat hartu izan da. Hala ere, zenbait herritan sustraitua dago, tradizioa da. Beraz, funtsezko tresna izan daiteke herri horien garapen eta kohesio sozialari begira. Horrela, herri zenbaitetan, arraun elkartea erreferente soziala da, arraunean aritze hutsaz harantzago doazen jarduerak antola ditzakeenak.
- **Komunikabide eta babesleek, goi mailako arrauna ikuskizun produktu eta produktu mediatiko gisa hartzen dute:** lehiaketa honen ezaugarri batzuk oso erakargarriak dira kirol ikuskizun gisa:
 - Zaleek segimendu nabarmena egiten dute eta ikus-entzule kopurua adierazgarria dira.
 - Denboraldia udan metatzen da, eta udan ez da horrenbeste kirol ikuskizunik.
 - Badago helburu den ikuslegoa Kantauriko kostalde osora eta beste esparru batzuetara zabaltzeko aukera. Horrela lehiaketaren interes komertziala handitzen da.

AUKERAK

1. **Arraunean ari diren eragile guztien arteko lankidetzaz**: Arraunean, azken urteotan, eragileak ahul izan dira eta ahaleginak barreiatu egin dira. Horra arraunak izan duen funtsezko ezaugarrietako bat. Beraz, elkarlanean aritu eta denon arteko ahaleginak batu behar dira Euskal Arraunaren alde. Dauden indar guztiak baliatu behar dira, zalantzarik gabe.

Eragileen elkarlanak eta gaikuntzak aukera eman beharko du behar diren hobekuntzak egiteko: kudeaketa profesionalizatu, teknikariak prestatu, epaileak, azpiegiturak kudeatu, lehiaketaren antolaketa...

2. **Instalazioak hobeki aprobetxatu eta sortu, kirol maila guztiei begira**: Kirol azpiegiturek garrantzi eta eragin handia dute arraunean aritzeko. Hala ere, Legutien dago denen erabiltzeko moduko instalazio finko bakarra eta ez da ongi baliatu hainbat arrazoi direla medio. Beraz, badago aukera instalazio horiek maila guztientzako (eskola, partaidetza, errendimendua eta goi maila) eta kirol modalitate guztientzat (aulki mugikorra eta tostako arraunketa) irekitzeko, eta, ere berean, badago aukera instalazio horiek erabiltzeko diru sarrerak lortzeko. Horrek on eginen lioke arraunari eta aintzat hartu beharra dago. A

Halaber, instalazio horiek ahalik eta hobekien erabili beharko lirake. Izan ere, horrek aukera emango luke gure lurraldeko beste toki batzuetan antzeko instalazio berriak ireki behar diren ala ez eztabaidatzeko.

3. **Kostaldeko zenbait herritan, elkarrekin eta beraien instalazioak aprobetxatu daitezke kirola herrian sustatzeko**: Zenbait herritan arraun elkarrekin erreferente soziala da. Horretaz baliatu beharra dago herri horietan kirol zerbitzuak martxan jarri eta garatzeko. Lan soziala egiteaz gain, dirubidea ere izan daiteke elkarrekin. Horra bera, jarduketara ildo bat aurrera begira..

4. **Arrauna, kostaldeko herrietara turistak erakartzeko baliabide gisa erabiltzea**: Arraunak naturarekin duen lotura baliatu daiteke turistentzako eskaintza handitu eta hobetzeko, kostaldeko zenbait herritan. Arraun elkarrekin eta instalazioek zeregin nabarmena izan dezakete gai horretan eta diru iturria ere izan daiteke.

AUKERAK (jarraipena)

5. **Egungo lehiaketa sistema garatu eta indartzea:** Lehiaketa sistema orokorra eta modernoa behar da. Horra hor non datzan arraunaren etorkizuna bermatzeko gakoetako bat. Hona hemen lehiaketa sistema horrek izan beharko lituzkeen ezaugarriak:
- Goi mailako ikuskizun lehiaketa Kantauri aldeko kostalde osorako. Ahalik eta hobekien baliatu beharko lirateke baliabide finantzariak sortzeko ahalmena arraunari, bere osoan, on egiteko.
 - Tostako arraunketako lehiaketa egin beharko litzateke euskal esparruan, gure arraunketako gazte baliagarriek aukera izan dezaten maila goreneraino iristeko. Era berean, lehiaketa horrek lehia bermatu beharko lieke gainerako elkarteei.
 - Aulki mugikorreko lehiaketa egin beharko litzateke euskal esparruan, gure arraunketako gazte baliagarriek aukera izan dezaten maila goreneraino iritsi eta tostako arraunketaren lehiaketa denboraldia osatzeko.
 - Araudi eta diziplina sistema garatu, modernizatu eta bateratzea.
 - Bandera eta estropaden antolaketa hobetzea, zeregin horretara baliatzen diren baliabideak gehituz eta haietan berrikuntza teknikoak sartuz (pisaketa, balizajea, neurketak, etab.).



4. Eginkizuna eta jarduketa ildoak

Zabalkundea

Herritarren artean, arraunketan aritzea bultzatu, zabaltu eta faboratzea, gure kultur ondareko osagai nabarmenaren aldeko zaletasuna gordetzeko.

Gaikuntza

Kudeatu, antolatu eta lehiatzeko gaitasuna garatzen laguntzea arrauna egungo zein geroko ezaugarrietara egokitu beharko duten eragile guztien artean.

Eginkizuna

Arraunarentzako etorkizun proiektua bermatzea, honetan oinarriturik: euskal ondare historikoan eta kulturalean sartu beharra eta, kirol espektakulu gisa, dituen aukerak baliatu beharra

Koordinaketa eta Elkarlana

Etengabeko elkarlana egin eta ahaleginak koordinatzeko esparrua ezarri behar da, Euskal Arraunketari erabateko bultzada eman nahi dioten eragile guztien artean

Lehiaketa

Kirol maila eta modalitate bakoitzaren eskariak aseko dituen lehiaketa sistema berria garatzea.



5. Proiektuak

Koordinazioa eta elkarlana: Etengabeko elkarlana egin eta ahaleginak koordinatzeko esparrua ezarri behar da, Euskal Arraunketari erabateko bultzada eman nahi dioten eragile guztien artean.

1. Arraunari buruzko Plan Estrategikoaren Jarraipenerako Batzorde Sektoriala sortzea 2003 - 2007:

- Lan batzordea sortuko da euskal arraunaren eragile guztien arteko elkarlan eta kooperazioaren aldeko dinamika sortzea helburuarekin. Protagonistak sektoreko eragile pribatuak (federazioak eta elkarteak) izango dira eta erakunde publikoetako (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak) ordezkariak parte hartuko dute.
- Batzorde horrek egingo duen lehen lana hauxe izango da: Plan Estrategikoaren ekintzak garatu eta zehaztea, eta hura segitu eta ebaluatzeko sistema ezartzea.
- Hauxe izan liteke lanerako plana:
 1. Batzorde Sektoriala eratu eta onestea.
 2. Arraunaren Plan Estrategikoa (2003-2007) onestea.
 3. 2003rako Ekintza edo programa zehatzak identifikatu eta garatzea.
 4. Planaren aurrerapenei buruzko jarraipen eta jakinarazpen sistema definitzea.
- Batzorde Sektorialak kide hauek izan beharko lituzke:
 1. Arraun Elkarteak
 2. Federazioak
 3. Udalak
 4. Aldundiak
 5. Eusko Jaurlaritza

Arduradunak: Eusko Jaurlaritza

Nahastutako eragileak: Lurralde Aldundiak, Udalak, Federazioak eta Elkarteak,

Abian jartzea: 2003ko apirila

Zabalkundea: Herritarren artean, arraunketan aritzea bultzatu, zabaldu eta faboratzea, gure kultur ondareko osagai nabarmenaren aldeko zaletasuna gordetzeko.

1. **Ikastetxeetan arraunean hasteko programa**: Elkarateak, udalak eta federazioak lotarazi ikastetxeetan arraunean hasteko programa sortu eta garatzeko. Helburua, arraunak gure historian eta kulturen duen garrantzia zabaldu eta jakinaraztea da.

Eskolako arraunean egin diren ekimenak ikusita, gomendagarria da haurra arraunean aritzea 12 urtetik gora (haurren maila), aulki mugikorrean nahiz tostako arraunketan.

Arraunean hasteko programaren helburu nagusia izango da, arrauna sustatu, zabaldu eta hartan prestatzea, bai kirolari begira, bai kulturari begira, eta, ondoko jarduerak hauek egin litezke:

- Ikasleak arrauna ezagutzeko jarduerak (historia, materialak, instalazioak, segurtasun neurriak, untziratzea-lehorreratzea).
- Teknika kontu orokorrak zabaltzea (oreka, propulzioa, koordinaketa, maniobrak), arraunergometroak eta elkarteen fosoak erabilia.
- Hastapen jarduerak: sustapen jarduerari segida emateko, arraunean aritzeko jardunaldiak daude, prestakuntza eta olgetari begira, aldundien (eskola-fitxa) eskola-kirolerako programen barnean. Legutioko instalazioak bereziki egokiak dira ikasleen artean arrauna sustatzeko, jardunaldien bidez.

Hiru lurralde historikoen eskolako arrauna batera eta koordinaziopean antolatu behar dute, eta, arrauna modu positiboan diskriminatu behar da beste kirol batzuen aldean, hau da, arrauna modu berezian sustatu eta zabaldu behar da. Hori erabat garrantzitsua da ahaleginak koordinatu eta arraunean aritzeak hasieran dituen oztopoak gainditu ahal izateko, beste kirol batzuek ez baitute halako oztoporik.

Arduraduna: Lurralde Aldundiak

Nahastutako eragileak: Udalak, lurralde federazioak, ikastetxeak eta elkarateak

Abian jartzea : 2003-2004ko ikasturtea

Zabalkundea: Herritarren artean, arraunketan aritzea bultzatu, zabaldu eta faboratzea, gure kultur ondareko osagai nabarmenaren aldeko zaletasuna gordetzeko.

2. **Eskola-adineko kirolarientzako lehiaketa** ezartzea. Lehiaketa erakargarria, osasuntsua, segurua eta teknikoki hurrei egokitutakoa, eguraldi oneko denboraldi laburretan egin ahal izateko modukoa.

Kontua da hurrei beste bide bat eskaintzea arraun lehiaketan hasteko. Izan ere, gaur egun federazioek antolatutako lehiaketak (batelen eta trainerilen liga, aulki mugikorrean) oso gogorak dira, kontzientziaturik ez dauden kirolarientzat oso nekezak.

- Egutegiari begira, lehiaketa laburrak antolatu behar dira, hilabete erakargarrietan (udaberri-udako ligak) eta gaur egun lehiaketarik ez dagoen hilabeteetan (uda). Horrek aukera emango du arraun lehiaketan hasteko uko egin behar izan gabe beste kirol lehiaketa batzuei.
- Materialari dagokionez, aztertu behar da gaur egungo ontzien egokitzapena (batelak, trainerilak, aulki mugikorrean) haurren ezaugarrietara. Era berean, egokitzapen horren diru bideragarritasuna aztertu behar da.

Arduraduna: Lurralde federazioak

Nahastutako eragileak: Aldundiak, Federazioak, Udalak eta Elkarteak.

Abian jartzea : 2003-2004ko ikasturtea

3. **Egungo eta etorkizuneko gorputz heziketako eta eskola-kiroleko** irakasleei arraunari eta, arraunak kirolari eta kulturari begira dituen balioei buruzko prestakuntza ematea.

- Arrauna, SHEA (Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea) eta Irakasletzako irakasgaia izan dadila etorkizuneko Gorputz Heziketa irakasleentzat.
- Ikastetxeetan egun dauden teknikarientzako prestakuntza ikastaroak antolatzea.

Arduraduna: SHEA/ Irakasletza eta Federazioak

Nahastutako eragileak: Aldundiak, Federazioak, Euskal Kirol Eskola

Abian jartzea : 2003-2004ko ikasturtea

Zabalkundea: Herritarren artean, arraunketan aritzea bultzatu, zabaldu eta faboratzea, gure kultur ondareko osagai nabarmenaren aldeko zaletasuna gordetzeko.

4. **Guztientzako Arrauna programak**: Arraunaren eskaintza sustatu behar da kostaldeko herrietan eta kirol portuetan. Gaur egungo eskaintzak baliatu behar dira, arraunaren jarduera ludikoa, olgeta eta turistikoa inguru seguru eta osasuntsuetan faboratzeko.

- Herritan, arraunaren olgeta-jarduera sustatzea (arrauna sustatzeko kanpainak, ikastaroak, "arraunaren eguna", etab.)
- Ikuspegi berezia, emakumea arraunean aritzea sustatzeko.
- Arraun ludikoa kostaldeko herrietako turismo-eskaintzan sartzea.
- Zerbitzu eskaintza olgeta-kirolean eta taldeentzako eskaintza berezia (enpresak, elkarteak, beste kirol klubak, etab.)

Arduradunak: Lurralde federazioak eta elkarteak

Nahastutako eragileak: Foru Aldundiak, Udalak.

Abian jartzea : 2000

5. **Lehiaketa ludikoak eta herri lehiaketak bultzatzea**: herrietan egiten diren estropadak eta beste ekitaldi batzuek baliatzea, lehiaketa ludikoak eta herri lehiaketak antolatzeke.

Arduradunak: Elkarteak

Nahastutako eragileak: Udalak, elkarteak eta Lurralde Federazioak.

Abian jartzea : 2004

Zabalkundea: Herritarren artean, arraunketan aritzea bultzatu, zabaldu eta faboratzea, gure kultur ondareko osagai nabarmenaren aldeko zaletasuna gordetzeko.

6. **Arraundegi egonkorrak**: Dauden azpiegiturak egokitu edo azpiegitura berriak garatu behar dira, Arraundegi Egonkorrak eratu ahal izateko. Horrela, arestian aipaturiko zerbitzuak geografi eremu zabaletan emango lituzkete. Arraundegien helburu nagusia izango da bakoitzaren geografi eremuan sortuko diren ekimen guztiak aintzat hartzea, eskola eta olgeta arraunari loturiko kirol zerbitzuak eskaintzeko. Era berean, arraundegi horiek arraunaren eta antzeko beste kirol batzuen topaleku izan litezke eta, horrez gain, esperientziak trukatzeko lekuak ere izan litezke: garapen teknikoa, identifikazio programak, talentuak garatzea, etab.

Arduradunak: Foru Aldundiak eta Udalak

Nahastutako eragileak: elkarteak eta Lurralde Federazioak.

Abian jartzea : 2004

7. **Komunikabideen elkarlana**: Komunikabideen elkarlana sustatu behar da, eskola-arrauna, olgeta-arrauna eta oinarritzko arrauna (haurrak, kadeteak, gazteak, e.a.) zabaldu eta bultzatzeko. Era berean, arraunaren balioak eta Euskadiko historia eta kulturarekin dituzten balioak zabaltzea.

Arduradunak: Komunikabideak

Nahastutako eragileak: Federazioak, elkarteak, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak

Abian jartzea : 2003

Gaikuntza: Kudeatu, antolatu eta lehiatzeko gaitasuna garatzen laguntzea arrauna egungo zein geroko ezaugarrietara egokitu beharko duten eragile guztien artean.

- Lurralde Federazioen eta Euskal Federazioen jarduketak bateratu edo koordinatu beharra sustatzea:** Hiru federazio estamentuek erabat koordinaziopean edo modu bateratuan aritu behar dute, ahaleginak eta indarrak biltzeko euren eskumen-esparruetan. Hori egingo da, elkarren arteko Kudeaketa Planaren bidez epe erdira eta luzera. Plan horrek, gutxienez, hauxe bildu beharko luke bere baitan:
 - Elkarren arteko kudeaketa egiturak eratzea (administrazioa, merkataritza, teknikoak, kirolezkoak, kudeaketazkoak..).
 - Eginkizunak eta eskumenak banatzeko sistema zehaztu behar da. Sistema hori oinarri harturik, federazioek euren jarduketari lehentasuna emango diote. Helburua hauxe da:
 - Araudi sistema EAE osorako gaurkotu eta bateratu behar da, bai lehiaketarako, bai estropadak antolatzeko, bai federazioen beraien funtzionamendurako, etab.
 - Diziplina sistema eraginkorra garatu behar da eta, horri loturik, diziplina batzordea eratu. Batzorde horrek ahalmena izango luke euskal arraunaren kirol lehiaketan erabakiak hartzeko.
 - Epaileak hartu, prestatu eta gaitzeko programak garatzea.
 - Teknikariak, entrenatzaileak eta prestatzaileak hartu, prestatu eta gaitzeko programak garatzea.
 - Zuzendariak, elkarteko kudeatzaileak etab. hartu, prestatu eta gaitzeko programak garatzea.
 - Estropada zelaiak homogeneizatu, estandarizatu eta homologatzeko programa garatzea (estropaden errolda eta planoak, balizajea arauak eta sistemak, etab...).
 - Goi mailako kirolariak teknikoki hobetzeko programak eta entrenatzeko plan bereziak garatu behar dira (CPT-rekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean, ikerketa programari heldu beharko litzaioke, tostako arraunketarako errendimendu patroiz estandarizagarriak garatu eta berritzeko, bestela, halakorik nekez garatuko litzateke beste leku batzuetan)
 - Laguntza teknikoa ematea, EAEn antolatutako lehiaketetan, arraun modalitate bakoitzaren eskakizunak bateragarri egin eta gazte baliagarriak Goi Mailako arraunean sartzea bermatzeko.
 - Partaidetzako kirolean edo/eta eskola-Kirolean eskuartzen duten eragileei zerbitzu eskaintza egitea (udalak, aldundiak, elkarteak, kirolariak, enpresak, elkarteak,...) arraunean aritzeko kalitatea eta seguritatea hobetzeari begira.

Gaikuntza: Kudeatu, antolatu eta lehiatzeko gaitasuna garatzen laguntzea arrauna egungo zein geroko ezaugarrietara egokitu beharko duten eragile guztien artean.

- Euskal selekzioak eta euskal arraunlariek nazioarteko mailako ospe handieneko kirol ekitaldietan parte hartzea sustatzea.
- Arabako Federazioa sustatzea.
- Kirol azpiegiturak batera kudeatzea, kirol maila eta modalitate guztien onurako, finantzazio iturri berriak bilatzeko aukera mahai gainean jarri, euskal arraunaren mesederako, betiere.

Arduradunak: Euskal Federazioa eta lurraldeetako federazioak.

Nahastutako eragileak: Eusko Jaurlaritzak, Aldundiak eta elkarteak.

Hasiera: 2004ko denboraldia

2. **Kudeaketa planak elkarteetan garatzea:** Egun dauden elkarte ereduak buruzko hausnarketa bultzatzen laguntzea, baita aipatu ereduak aldatzeko aukera aztertzen ere. Horretarako, ondokoan lagunduko zaie elkartei:

- Euskal arraunerako lehiaketa sistema berriak duten funtzioa eta zeregina berriz planteatzen, euren helburuak zehaztuz arraun maila (eskola, partaidetza, lehiaketa eta goi maila) eta modalitate bakoitzerako.
- Elkarlanerako estrategia bat (arraun elkarteak, beste kirol elkarteak, udalak, elkarteak, eta abar) garatzen, euren kudeaketa egiturak (merkataritzakoak, tekniko-kirolezkoak,...) sendotzen ahalbidetuko dutenak.
- Finantzazio iturri berriak bilatzen, lan planak eta epe ertain zein luzera egonkorak izango diren jarduketak ahalbidetuko dituztenak.

Goiko hausnarketen ondorioz ateratako jarduketak multzoari esker, elkarte eredu berriak sortu beharko liriteke, kirol eta lehiaketa ikuspegi berriaren aurrean dauden erronka berriak aurre egiteko nahikoa gaitasun izango dutenak. Ondoko aldagaiak hartu beharko dira kontuan horretarako:

Gaikuntza: Kudeatu, antolatu eta lehiatzeko gaitasuna garatzen laguntzea arrauna egungo zein geroko ezaugarrietara egokitu beharko duten eragile guztien artean.

- Finantza baliabideak sortzeko gaitasuna,
- Maila desberdinetan federatutako arraunlari kopurua,
- Elkartea bideratzen nahastutako zuzendari kopurua,
- Epe erdira zein luzera proiektuak garatu ahal dituen kudeatzaile gaitu kopurua.
- Azpiegiturak eta ekipamenduak,
- Bazkideak, zaleak, bezeroak, ea abar.

Arduradunak: Arraun Elkartek

Nahastutako eragileak: Udalak, Aldundiak

Hasiera : 2004ko denboraldia

3. **Kirol azpiegitura komunak erabiltzera bultzatzea** kirol eragile, maila eta modalitate guztiak.

- Negozio Plana gauzatzea Legutio instalazioetan, arraun osoaren mesederako, kudeatzeko zein ustiatzeko eredu berriak ezarriz, beharrezkoa balitz, ondoko helburuokin:
 - Erabilera optimizatzea elkarte eta federazio guztientzat, kirol maila (goi maila, lehiaketa, eskola eta olgeta) eta modalitate (aulki mugikorreko zein tostako arraunketa) guztietarako zerbitzu eskaintzari dagokionez.
 - Zerbitzu eskaintza ugaritzea eta/edo beste kirol modalitate batzuetara (igeriketa, piraguismoa, triatloia,...) zabaltzea.
- Ekonomi zein ingurumen geroko bideragarritasuna aztertzea, baita instalazio komun berriak eraikitzeko kirol interesa ere, Legutioko instalazioen arrakasta eta aprobetxamenduaren menpe, betiere.

Arduradunak: Eusko Jaurlaritza

Nahastutako eragileak : Federazioak, Aldundiak, elkarteak

Hasiera: 2003ko ekaina

Gaikuntza: Kudeatu, antolatu eta lehiatzeko gaitasuna garatzen laguntzea arrauna egungo zein geroko ezaugarrietara egokitu beharko duten eragile guztien artean.

4. **Udalen kirol azpiegitura eta ekipamenduak sortu, modernizatu eta garatzea sustatzea**, ondokoei aurre egiteko helburuarekin:
- Eskola eta partaidetza mailetako arrauna garatzeko planak,
 - Arraun elkarteak eskualdeko kirol garapenaren eragile gisara erabiltzea,
 - Arrauna turismoa erakartzeko beste aldagai gisara ustiatzea,
 - Instalazioak talde desberdinei (enpresak, elkarteak, beste kirol elkarte batzuk, ...) eskaintzea olgeta zein partaidetza kirola egiteko.

Arduradunak: Udalak

Nahastutako eragileak: Elkarteak

Hasiera : 2004

Lehiaketa: Kirol maila eta modalitate bakoitzaren eskariak aseko dituen lehiaketa sistema berria garatzea.

1. **Goi mailako lehiaketa sortzea tostako arraunketa modalitatean**. Helburua ikuskizun handiko lehiaketa sortzea da, geografi eremu zabal batean, ondokoa lortzearren:
 - Ikuskizun-kirolak arraun osoari ekartzen ahal dizkion diru-sarrerak optimizatzea.
 - Arraunerako finantzazio iturri berriak (kirol apustuak, esate baterako) bilatzea.
 - Arraunak duen kirol errendimendu eta ikuskizun maila handia sustatzea.
 - Oinarrizko mailako arrauna garatzeko ahaleginak egiten dituzten elkarteetako lanaren ekonomi zein kirol errentagarritasuna bermatzea, konpentsazio mekanismo beharrezkoak ezarriz.
 - Nolabaiteko egonkortasuna bermatzea kirol proiektuetan, epe ertain zein luzera lan egin ahal izatearren, gutxieneko betebeharrak batzuk ezarriz lehiaketa sistema horretan aritzeko aukerak dituzten elkartei. Aipatu betebeharrak elkarteek ondoko eremuotan dituzten gaitasunei lotuta egongo dira:
 - Kirol merituak
 - Kirol azpiegitura eta ekipamenduak
 - Ekonomi azpiegiturak
 - Kirol egitura (teknikariak, lana oinarrizko mailan,...)
 - Kirolariak atzemateko “konpentsazioak edo mugatzeak” delako araudiarekiko, gastuak murrizteko araudiarekiko, eta abarrekiko begirunea.
 - Euskal arraunaren eragile bilakatzea, hobekuntza tekniko eta/edo teknologikoak sartuz arraunaren antolakuntzan zein garapenean, baita zaleak, jarraitzaileak eta arraunlariak sortu eta ugarituz.
 - Arraunaren irudia garatzea, aritzeko geografi esparrua hedatzea eta produktuaren xede izango den publikoa ugaritzea.
 - Ondokoen arteko oreka lortzen saiatzea, behar-beharrezkoa baita jarraipen eta zaletasun mailari eusteko zehaztutako geografi eremuaren leku guztietan: kirol proiektu guztiek behar duten denbora-egonkortasuna, lehiaketa maila ahalik eta gehien sustatzea eta maila goreneko lehiaketan aritu ahal izateko mekanismoak (igoerak, jaitsierak,...) eratzea.

Arduradunak: Elkarteak eta Eusko Jaurlaritza


Nahastutako eragileak: elkarteak, federazioak, estropadak antolatzen dituztenak, babesleak, hedabideak,...

Hasiera: 2003ko apirila

Lehiaketa: Kirol maila eta modalitate bakoitzaren eskariak aseko dituen lehiaketa sistema berria garatzea.

1. Goi mailako lehiaketa sortzea tostako arraunketa modalitatean (jarraipena).

LEHIAKETAN ARITU LITEKEEN HASIERAKO GEOGRAFI EREMUA



* 61 remeros en 1997

•Iturria: Espainiako Arraun Federazioa, INE/EIN, Eustat eta guk prestatua

Lehiaketa: Kirol maila eta modalitate bakoitzaren eskariak aseko dituen lehiaketa sistema berria garatzea.

2. Lehiaketa sistema koordinatua garatzea EAEko esparruan errendimendu zein oinarritzko mailetakoko elkarreentzat, helburu hauexekin:


- Aulki mugikorrekoko arraunketaren zein tostako arraunketaren premia eta interesak batzea, EAEko esparruan bi modalitateak bateratzen eta egutegiak koordinatzen ahalbidetuko duen aulki mugikorrekoko zein tostako lehiaketa (liga) sortuz. Ildo horretatik, ondoko helburu hauek jorratu beharko dira:
 - Lehentasuna ematea aulki mugikorrekoko modalitateari gazte mailetan, askoz ere egokiagoa baita adin horretako garapen fisikoarentzat.
 - Lehiaketa denboraldia luzatzea eta udan ez lehiatzen saiatzeari; horrela, gazteen interesa mantenduko da denboraldian zehar, batetik, eta, bestetik, udan lehiatzeak familiakoei sortu ohi dizkien eragozpenak saihesten dira.
 - Oinarritzko mailetan erabiltzen diren ontziak (iolak eta batelak) ahalik eta gehien murriztea, baliabideak eta ahaleginak optimizatzearen nahiz arraunlarien arteko garapen harmoniatsua bateratzearen.
- Gazteek euren elkarreentako traineru nagusietara igotzeko aukera sustatzea, hau da, goi mailara igotzeko aukera erraztea etorkizun handiko kirolariei:
 - Traineruetan gutxieneko gazte kopurua izatera behartuko duen araudi zehatza ezarriz (adibidez, 23 urtetik azpiko gutxieneko kopurua ezartzea).
 - 23 urtetik azpiko trainerila lehiaketa sortzeko bideragarritasuna aztertuz, gazteak horretan aritu daitezzen senior mailako traineruetara igo arte.
- Senior mailako lehiaketa bat sortzea EAEko esparruan, goi mailako lehiaketan aritzerik ez duten taldeentzat.
- Lehiaketa horretako euskal arraunlari onenek aulki mugikorrekoko modalitatean nazio zein nazioarteko mailetan egiten diren maila goreneko ekitaldietan parte hartzen ahalbidetzea.
- Oinarritzko mailetakoko (haurrak, kadeteak eta gazteak) lehiaketen erregulartasuna eta lehiakortasuna bermatzea, aulki mugikorrekoko lehiaketa zein tostako arraunketako lehiaketa bateratuko dituzten bi fase ezarriz (lurreko mailakoa, bata, eta erkidego mailakoa, bestea), beharrezkoa izanez gero.

Arduradunak: Euskal Federazioa eta lurralde federazioak

Nahastutako eragileak: Aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta elkarreak,

Hasiera : 2003ko urria

Lehiaketa: Kirol maila eta modalitate bakoitzaren eskariak aseko dituen lehiaketa sistema berria garatzea..



Lehiaketa: Kirol maila eta modalitate bakoitzaren eskariak aseko dituen lehiaketa sistema berria garatzea..

3. **Arraunaren maila teknikoa igotzea helburu duten teknika eta kudeaketa ikerketak:** Ekimenak, neurriak edo entrenamendu zein lehiaketarako programa teknikoak gauzatzeko xedea duten beharrezko ikerketak garatzea, lehiaketen nahiz euskal arraunlarien maila teknikoa igotzeko helburu nagusiaren barruan, betiere. Hona hemen ikerketa horietako batzuk:
- Goi mailako lehiaketa garatu ahal izateko teknika eta kudeaketa ezaugarri zein betebeharrak ikertzea.
 - Aulki mugikorrean aritzeak tostako arraunketan errendimendu hobekoak lortzeko dituen onura teknikoen gaineko zientzi eta kirol ikerketa. Ikerketa horrek bi ildo hauek jorratu beharko lituzke:
 1. Aulki mugikorrean aritzeak tostako arraunketan errendimendu hobekoak lortzeko gazteei ekartzen dizkien onurak.
 2. Aulki mugikorrean eta tostako arraunketan batera aritzeak erabat prestatutako arraunlariei ekartzen dizkien onurak.
 - Aulki mugikorreko zein diziplinari eman behar zaien lehentasuna ikertzea, goi mailako errendimenduko praktikak sustatzeko Euskadin.

Arduradunak: Eusko Jaurlaritza

Hasiera: 2003

